TOKIKOM
txintxarri
**1053.** zenbakia 2012-10-23 Lasarte-Oria txintxarri.info

euskararen 8 maratoia

# Ez dira 40 ordu, bizi osoa baizik!




MEKANIKAKO TAILERRA

WABCO
DIMETAL S.A.
IVECO
ZERBITZU OFIZIALA
LOMBARDINI

# SAN JOSE-OLAIZ

- Kamioien txasia konpontzeko oinarria.
- Aluminiozko eta burdinazko soldadurak.
- Industriako ibilgailuen konponketa.

Ordutegia: 8:30 - 20:30

bihotzetik plazara

Zirkuitu ibilbidea 6 • 20160LASARTE-ORIA • Tel.: 943 361857 • Faxa: 943 366508


SAUSTA
JATETXEA
Euskararekin bat
Tel. 943 65 54 53
Belate Pasalekua 7-8 behea
20400 TOLOSA


euskararen 8 maratoia
Euskaran maratoian
parte hartzeagatik
hain borondate ona
izateagatik
eta hainbeste laguntza
emateagatik
zortzi milioi esker
bihotz bihotzetik
lasarteoriatar guztioi,
Ttakun eta Lasarte-Oriako
Euskara Zerbitzuaren partetik
Kultur Elkartea
Ttakun
bihotzetik plazara






# Urriaren 20a, festa hasi da

Goizeko zortziretan elizako kanpai hotsen artean zortzikoteko kideek udaletxetik suziria bota eta lau urtez itxarondako festa handiari hasiera eman zitzaion. Txistulariekin batera udaletxetik oholtzara iritsi zen zortzikotea eta hasierako ekitaldi hunkigarriaren ostean bertso, dantza eta musikak oholtza hartu zuten.







Zortzikotea kamioian igota herria esnatzera abiatu ziren diana berezia eginez, bitartean lehen taldeak Benedika mendian buzoia jartzen zuen igelarekin batera. Klown pailazoek bihotza erditu zuten.













**Dantza, musika...-** Eguna txokolate goxoarekin hasi zen eta jubilatuek hartu zuten Okendo. Soinketa egin zuten sasoi betean daudela erakusteko eta ondoren kantatu ere egin zuten oholtza gainean. Iñigo Artolaren A ze look-a bertan izan zen, Honetan famatuekin dituen argazki guztiak erakusgai jarri zituen eta elkartasun azoka, udaletxera bisitak, benedikara igoerak eta ikastetxeetako irakasle eta ikasleen ikuskizun bikainak ikusi ahal izan ziren besteak beste.









Eguraldi txarragatik egin ez zen kalejira oholtzara igo zuten.





Sasoeta-Zumaburu eta Landaberriko ikasle zein irakasleek ikuskizun paregabeak eskaini zituzten oholtza gainean. Bi eskoletako haur eta irakasleek batera egin zituzten horietako bi.



aldaz
hortz klinika · clínica dental

Klinikan %15eko deskontua inplante tratamenduetan
* Beste deskontuei eta sedazioari ezin zaie gehitu deskontu hori.

RPS: 124/10

Aldaz Hortz Klinikak tratamendu aurreratuenetan aplikatutako punta puntako teknologia eskaintzen dizu

- inplanteak eta hortz fijoak egun batean
- ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
- “invisalign” ortodontzi ikusezina
- haurrentzako ortodontzi tratamendu prebentiboak eta korrektoreak (Osakidetza-PADI)
- pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
- interesik gabeko finantziazioa 18 hilabete arte

8.
Maratoiarekin euskararen alde!

Deitu gure zerbitzua ezagutzeko
943 366 377
Ola kalea,10
Lasarte-Oria 20160
San Bartolome, 22
Elgoibar 20870
www.dentalaldaz.com

AENOR ER Empresa Registrada ER-0605/2008

TABERNA
Buenetxea
KAFETEGIA

Probatu al dituzu gure gosariak?
Tostadak
Kruasanak plantxan
Txokolatea txurroekin
.............



Kafe bereziak:
Irlandesa
Eskozesa
Kaputxinoa
Bonboia

Euskararen alde 8. maratoiarekin!

D.O. Ardoak

Pablo Mutiozabal 2 • Tel.: 943 369508
LASARTE-ORIA


Erabateko gutizia aurkituko duzue
gure produktuetan!
Bila bazabiltza, hementxe duzu
gure BETIKO kafea
BETIKO
Kafea
8.-enean
gu ere euskararen alde
OGI BERRI
GURE
KALITATEA
DASTATU
Pablo Mutiozabal 3 • Tel.: 943 364121 • 20160 LASARTE-ORIA


CIAL. HOSTELERA
DEL NORTE
ESPERIENTZIA
- 30 Urtez hostalaritzako proiektuak egiten
- Diseinu eta planoak landu eta obra berrien etaerreformetan aholkua ematen dugu
HOBERENEN KONFIANTZAREKIN
- Hostalaritzako makinaria salmenta
- Altzairu herdolgaitzeko ekipamenduak
- Kanpai, hodi eta erauzketa
- Hozteko makinen instalazioa
LAGUNTZA TEKNIKOA
- 24 orduko zerbitzua gure bezeroei
- Mantenu prebentiboa
TÜVRheinland CERT ISO 9001
EGOITZA NAGUSIA
Av. Rekalde 1 - Irubide Eraikina - 51 Lokala
20018-DONOSTIA - SAN SEBASTIAN
TEL: 902215066//comercialhostelera@comercialhostelera.com
www.comercialhostelera.com







Ttakun Kultur elkarteak haur tailerrak arkupetan egin behar izan zituen.

Pintxo poteoari oholtzatik eman zioten trikitilariek hasiera, Jalgunekoek ere euren kanta abestu eta dantzatu zuten.



Maratoi honetan bizitako momentu berezienetako bat izan zen Jon eta Alexen ezkontza, bikotea limusinan iritsi zen.






**Ezkontza eta festa.-** Larunbata eguerdian Jon eta Alexen ezkontza egin ospatu zuen Pablo Barrio alkateak oholtzan, une berezienetako bat izan zen hau. Gainera DYAkoek istripu simulakro ikusgarria burutu zuten eta Sasoetako guraso elkarteak antolatuta, haur tailerrak, Esazu irratsaioa eta buruhandiak izan ziren Okendo inguruan. Esazu saio berezian alkatea, Ttakuneko lehendakaria Tomas Arrizabalaga eta Agus Mujika elkarrizketatu zituzten.





Sasoeta-Zumaburuko Burunzpe elkarteak antolatu zituen haurrentzako gauzak.










Larunbata arratsaldean, Zentro Zibikoko emakumeak, HHIko Lan eta Lan antzerki taldea, ATC saskibaloi taldeko neskak, Jalgune eta akroyoga ekitaldia izan ziren Euskararen Maratoiko oholtzan.







**Herrita ugari oholtza gainean.-** Bazkal ostean, ekitaldi ugari izan. antzerkia, musika, dantza eta moda izan ziren Euskararen Maratoian. Elkarte, talde eta herritar ugari izan zen oholtzan. Lehen orduan antzerkia izan zen nagusi. Jarraian, pailazoen txanda izan. Gazte Klubeko lagunen aurkezpen bereziaren ostean, Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin batera, Zubietako lagunak, Ostadarreko kadeteak eta Ostadar Beltzak Errugby taldeko gaztetxoak, Ttakuneko lankideak, Kukuka eskolako gazteak, Jalguneko gazteak, Xumela abesbatza, Zabaleta auzoko lagunak, Erketz EDT-ko lagunak, Banaiz Bagara elkarteko lagunak eta zortzikoteak pailazoen hainbat doinu abestu eta dantzatu zituzten. Eta dantzarekin jarraituz herriko Itzartu taldeak erromeria egin zuen. Honetaz gain, gazteek ere izan zuten protagonismoa. Landaberri BHIko gazteen dantzak eta Ahuen taldearen kontzertua izan ziren. Dinbi banda batukadak ere erritmoa ezarri zuen karpan. Azkenik afal aurretik, moda desfile berezia izan zen. Karpa lepo bete zen.



Itzartu taldeak dantzan jarri zuen Okendo plaza.





Gazteek ere izan zuten bere tartea, Ahuen taldea, Landaberri BHI-ko ikasleak, Dinbi banda batukada...



Kukuka eta Nora Izagirreren elkarlanari esker egin zen moda eta dantza garaikide nahasketa bikaina.

Euskararen alde 8. maratoiarekin!
8.
i.URRUZOLA
AROZTEGIA
• Era guztietako arotz-lanak.
• Armairu barrenduak.
• Etxe barruko konponketak.
• Parket flotantea.
Oria etorbidea 4, behea
(Errekatxo jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371200 / 610 413131
LASARTE-ORIA




Aurreko zazpi maratoietako zortzikoteko kideak eta Solaskide programan dauden lagunak omendu zituzten ere larunbata gauean.



**Bertsoak eta talentua.-** Bikotekako bertso finalean Ebaristo Pikabea eta Asier Azpiroz Ane Labaka eta Txantxeren aurka lehiatu ziren. Lehenengo bikotea izan zen garaile. Gainera, Lasarte-Oriako Bertso Eskolak omenaldi txikia egin zion Ebaristori. Bertsoen ostean, herritarrek duten talentua handia ikusi ahal izan zen Maratoiko oholtzan.





Makulu Ken eta Gaueko Itzalak herriko taldeek girotu zuten Euskararen Maratoiko gaua.



Karaokean ere trebeak direla erakutsi zuten herriko gazteek.



Buruntzako erronkan aritu ziren Jonathan Flores, Endika Garzia eta Iraitz Arruabarrena

# Urriaren 21a, ekintzaz betetako eguna

Igande goiza ere bereziki euritsua izan zen eta kirol probetan bereziki oztopo izanda ere, bikain aritu ziren Buruntzako erronkan, priba mixtoan, proba konbinatuan parte hartzaileek. Buruntzan 38:48ko denbora egin zuen Endika Garziak errekorra hautsiz Flores eta Arruabarrenaren kontra lehian. Telleriatarrek ere erakustaldia eskaini zuten.



Kirola nagusi izan zen igande goizean proba konbinatuan patinetan, korrika, tirolinan eta ergometroan aritu ziren.



INPRENTA
ERROTULUAK
BIZKER IMPRESIÓN DIGITAL
Geltoki, 9 - LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362 061
Maratoiarekin euskararen alde!

Patxi Larrañaga
Lasarte-Oria
Kale Nagusia 39
Tel.: 943 372668
Faxa: 943 370737

NAROA
PATXI LARRAÑAGA
ANA IPARRAGUIRRE
Bero-bero txistorra
orain eta gero!!!!

ika
haur eta gazteentzako
jantziak
Euskararen Maratoian
asko disfrutatu izana espero dugu !
Geltoki Kalea 3 • Lasarte-Oria 20160 • Tel.: 943 045978
www.ikaarropadenda.com







Marian Bueno eta Bakartxo Alkortak irabazi zuten igande goizeko babarrun lehiaketa. Aza, txorizoa eta saiheskia ere egosi behar izan zituzten parte hartu zuten sei bikoteek. Epai mahaiaren eta irabazleen argazkien azpian, eguerdiko bazkariko hiru irudi.







Alkatearen makilak salgai artisau azokan.



Xumelak kantu jira egin zuen larunbat eguerdian.






Amalurreko txistulari eta soinujoleek girotu zuten igande goiza. Euskararen Maratoiaren karpan zenbait ekintza burutu ziren eta bitartean hainbat pieza jo zituzten Amalurreko musikariek.





Babarrun janaren ondoren musean eta xakean aritu ziren. Ondoko irudian museko txapeldunak saria jasotzen.






Igandean, bazkalostean, Joxerra San Sebastian eta Rafafa magoak eskaini zuten euren emanaldia.









Aurreko lau urtetan jaio diren haurren bataioan musika, dantza eta bihotz formadun puxikak izan ziren.



Udal Musika Eskolako ikasleak eta Banaiz Bagara izan ziren ere oholtzan.

**Jai giroa nagusi.-** Igande arratsaldean, 2008 eta 2012 urte artean jaio diren haurrak bataiatu zituzten Euskararen Maratoian. Haurrek ederki dantzatu zuten eta bihotz formadun globoak banatu zitzaien plazan zeuden haur guztiei. Udal Musika eskolako eta Banaiz Bagara elkarteko lagunek musika ekitaldi aparta eskaini zuten. Txulalai erraldoian Dabid Egizabal eta Maider Oiartzabalek emandako azalpenak adi jarraitu zituzten herritarrek dantzatzeko.





Zortzikoteak moda deskile berezia egin zuen, urtaroen desfilea.



Kukuka antzerki eta dantza eskolako Kuba Libre antzerkiko lagunak dantzan izan ziren.















Telleri baserriko txekorra afaldu zen igandean. Ondoren etorri ziren Agirre eta Muñoa bertsolariez, zein Erketz, Alboka eta Zero S etteren emanaldiak.




Agustin Mugika Takolok kapela luzea erantzi, barrutik txapela atera eta euskaldunoi nortasuna ematen diguna aldarrikatu zuen.



**Amaiera ederra.-** Euskararen Maratoiak amaiera bikaina izan zuen igande afalostean. Bikaina izan zen Alboka abesbatzak, Zero Sette akordeoi orkestrak eta Erketz dantza taldeak elkarrekin eskaini zuten ikuskizuna. Ia bi orduko emanaldian, Euskal Herriko kantu eta dantza ezberdinak taularatu zituzten. Ondoren zortzikoteak banan banan bere agurra bota zuen bero-bero ziren herritarren aurrean, saioa borobiltzeko Zuaznabar aitona bilobek jo zuten txalaparta Okendoko karpan jarritako oholtza gainean eta azken aldiz kantatu eta dantzatu zuten Maratoiko bero-bero abestia denek elkarrekin.
















Euskararen alde 8. maratoiarekin!
· Ezkontzak
· Industria eta Publizitate Argazkigintza
· Bideoak
· Jaunartzeak
· Familia eta Haur Sesioak
· Book-ak
· Eskaneaketak
· Argazki Erretokeak
· Anpliazioak
· Argazkigintza Ikastaroak
eztiphoto estudioa
Golf Plaza 4, Atsobakar. Tlf: 943 900 565 E-mail: info@eztiphoto.com
www.eztiphoto.com


Nagusia 50, behea
Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 36 11
Nagusia 36, behea 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 37 04 46
Guk ere euskara
8.
bihotzetik plazara
HARATEGIA
Geltoki Kalea 15 behea
Lasarte-Oria
Tel.: 943 376585
Eta orain, Urnietan ere
Balerdi Harategi berria
BALERDI
URDAITEGIA

## Agenda

Ostirala 26, 23:00etan, Jalgi Kafe-Antzokian



### Euskal doinuak eta jazza

Ostiralean berriro ere Kantaginjazz emanaldia entzuteko aukera paregabea izango da Jalgi Kafe-Antzokian. Ainara Ortega abeslariaren ahotsean Euskal Kanta klasikoak jazz formatuan entzungo dira eta Iñaki Salvador piano jolea lagun izango du.

## Lasarte-Oria

### Zinea

*Manuel Lekuona kultur-etxea*
**Igandea 28, 17:00etan**
Haurren zinea atalaren barruan, "Madagascar 3" marrazki bizidunetako filma eskainiko da. Sarrerak leihatilan, 3,40 euro; internetez, 3 euro.



### Musika

*Abend Kafe-Antzokia*
**Ostirala 26, 23:45ean**
Punk Rock gaua izango da Sutura eta Xuorum taldeen eskutik. Sarrera 5 euro. Kultur kale zikloaren barruko ekintza.

*El Bar de Mau*
**Larunbata 27, 20:00etan**
Defectos Comunes taldearen posthardcore doinuak eta The Animal Within taldearen alternative rock-a entzuteko aukera izango da.

### Ipuin Kontalaria

*Manuel Lekuona kultur-etxea*
**Azteazkena 30, 18:00etan**
Bea Egizabal herritarrak 6, 7 eta 8 urteko haurrei ipuin bitxi eta dibertigarriak kontatuko dizkie.

### Antzerkia

*Manuel Lekuona kultur-etxea*
**Larunbata 27, 18:00etan**
"Azken Portua" haurrentzako antzerkia eskainiko du Dejabu antzerki taldeak. Kukuka antzerki eskolak proposatutako saioa. Sarrerak leihatilan 3,40 euro; interneten 3 euro.

### Erakusketa

*Jalgi Kafe-Antzokia*
**Urria osoa**
Sancho Pereg artistaren margoak ikusgai izango dira.

## Herritarren txokoa

**Euskararen 8. Maratoian aurkitutako gauzak**
Euskararen 8. Maratoia amaitu eta garbiketa lanetan, honako gauza hauek aurkitu dira Okendo plazan zegoen karpan: atril bat, gitarra bat, 3 jertse eta aterki bat.
Gauza hauen jabeak Ttakun elkartetik hurbildu daitezke hauek jasotzera.

**Maria Auxiliadoraren ohorezko meza**
Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da urriaren 24an, asteazkena, arratsaldeko 17:00etan.

**Aterpeako Loteria**
Aterpea Merkatarien Elkarteak Gabonetako Loteria jarri du salgai. Loteriako txartelak elkartea osatzen duten denda edo komertzioetan daude eskuragarri.

**Autobusa Baionara**
Herrirak azaroak 10an Baionan antolatu duen manifestazira joateko autobusa jarriko da Lasarte-Orian.
Autobusean joateko Ilargi, Artizar, Gure Etxea tabernatan eta Xirimiri elkartean daude izen-emate zerrendak.

**Herriraren elkarretaratzea**
Hileko azken ostiralero bezala, urriaren 26an Lasarte-Oriako Herrira mugimenduak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko**: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**

Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

**Argitaratzailea:** Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, **943 366 858, 943 371 448,** G-20407557 **Legezko gordailua:** SS513/93 ISSN: 1134-0053 **Inprimategia** Zeroa Multimedia, S.A.
**Aleak zenbakiko:**7.800 **Erredakzioa:** Nerea Eizagirre, Jon Altuna Iza, Maider Azurmendi, Jon Altuna Egitegi txintxarri@txintxarri.info txintxarri@ttakun.com **Publizitatea:** Arantza Artola, publizitatea@ttakun.com
**Administrazioa eta banaketa:** administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. **Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.**






# JOSE AIZPURUA UNANUE S.L.

## eraikuntzak





Gu ere euskararen alde
ongi igaro izana espero dugu !










- Igeltseritza orokorrean
- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Gremioen koordinazioa
- Barne erreformak

ALCAR VENTANAS

Zuregandik hurbil

Tel: 943 37 78 68
www.ventanasalcar.com

Euskararen Maratoiarekin
euskararen alde






Etorri gure denda berrira, Plaza Oriamendi, 2. (Lehengo Doble J)

GUARDIAN SUN® KÖMMERLING® Bandalux CORTIZO







Tel: 943 37 78 68
tienda@ventanasalcar.com
www.ventanasalcar.com
Jarraitu hemen, www.facebook.com/VentanasAlcar

ERAKUSKETA
Plaza Oriamendi, 2
20160 - Lasarte-Oria
Gipuzkoa · (Lehengo Doble J)

TAILERRA
Ibaiondo,4 erdisotoa 5-A
20160 - Lasarte-Oria
Gipuzkoa


Euskararen Maratoian
ongi pasa izana
espero dugu
iZARRA
BiTXiTEGiA
www.izarrabitxitegia.com
Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945
IPARJOY A.I.E.